

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko irailaren 4a. IX. urtea. 2.393. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Naparrenea baserriaren egoera, atzo goizean, sutea jasan ondoren. I. TERRADILLOS

Leaburuko Naparrenea baserria, kiskalita

Herenegun gauean piztu zen suak ia erabat erre du Naparrenea baserria; bertan bizi den emakumeak ez du zauririk jasan **03**

Leire Olaberría

Txirindularia

«Olinpiar Jokoen ondoren erabat deskonektatu nahi nuen»

Buruak eskatzen ez dion bitartean, oporretan jarraituko duela esan du

Elkarrizketa **07**

Xabi Fernandez

Nabigatzailea

«Bagenekien prestakuntza ez zela hobereña izango»

Hirugarren Olinpiar Jokoen ostean, aurki Amerika Kopa prestatzen hasiko da

Elkarrizketa **07**

Bikotekidea jotzea egotzita atxilotu dute gizonetako bat, Tolosan

Erdiguneko tren geltokiaren ondoan ikusi zuen Ertzaintzak eraso, igande gauean; 28 urte ditu atxilotuak **05**

Tolosaldeko ostatuaren okupazioak gora egin du aurtengo udan

Tolosako Trianguloa plazako informazio gunea ez izateak eragina izan du bisitarien kopuruan; iazkoa baino txikiagoa izan da **05**

Eneko Garmendia, bigarren Euskal Herriko txapeldun

Lokotx biltze txapelketan lortu du garaipena baliarraindarrak, Donostian; Josune Gorostidi txaramarrak bigarren postua eskuratu du **06**

Aimar Agirresarobe tolosarra garaile Zumaiako triatloian

23 urtez azpikoen mailan, Maialen Muñoz ibartarra izan da lehena, eta sailkapen orokorrean bosgarren postua erdietsi du **06**

Nik naitu euskara

MARIKULA

IRAILA 3-14
09:00 - 13:00 / 14:00 - 19:00

AITZOL UDAL EUSKALTEGIA
Rendilla 34-8, 3.a
20400 TOLOSA
943651006 - 943652343
www.aitzol.euskarategia.net



Mikel Egibar presoaren bikotekideak eta seme-alabek istripu larria izan zuten abuztuaren 7an; hurrengo egunean elkarretaratze jendetsua egin zen, Zizurkilen. HITZA

Istripuak eta kirol emaitzak izan dira abuztuko egunek eman dutena

Kirol albisteak izan dira protagonista abuztuan; Mikel Egibar presoaren familiaren istripua dela eta, mobilizazioak

Eneritz Maiz

Urtero moduan, abuztua izanagatik ere, kirolak eta kirolariek ez dute atsedetik hartzen eta kirol emaitzak izan ohi dira abuztuko egunek ematen dituzten berri gehienak. Aurten, ordea, istripuak ere albiste izan dira.

Mikel Egibar preso zizurkildarraren familiak izan zuten istripua Zuerako espexera egindako bisitatik bueltan zetozela. Bikotekidea, semea eta alaba larri zauritu ziren. Horrez gain, euskal preso gaixoen egoera salatzen baraualdia egin zen Ibarako jailetan. Bestetik, kamioi gidari bat hil zen Elduainen izandako istripuan. *Ttiki* txakurrak Nafarroako txapela eskuratu du txapel gehien dituen bilakatu. Bestalde, urrian hauteskundeak izango dira Tolosaldean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakariartzako aurreratu egin baitituzte.

IKER KARRERA

■ **Chamonix eta Zermatt arteko marka.** Iker Karrera amezketarrak uztailearen 26etik 27ra marka saiakera egin zuen. 115 kilometro egin behar izan zituen lasterka, eta Alpeetako Mont Blanc eta Zerbino mendiak lotzeko 21 ordu eta 20 minutu behar izan zituen. Telebistako *Al filo de lo imposible* programako grabaketa lanak egin zituzten. Lasterketa nola burutu zuten telebistaz ikusteko aukera izango da. Altura eta desnibel handiko proba izan zen, eta hamabi gaziar gurutzatu behar izan zituen Iker Karrerak.

SEGA

■ **Ormaetxeak eta Alkorkak apustua lotu dute.** Jexux Mari Ormaetxea *Urki* txapeldunak eta Mikel Alkorta txapeldunordeak apustu mistoa lotu zuten. Orendaindara eta asteasuara abuztuaren 2an Kantabriko tabernan elkartu ziren. Irailaren 23an jokatu dute, eta bost kilometro korrika eta jarraian ordu eta erdi bete bitartean segan egin beharko dute. Kilorik



Haur sahararrek amaierako festa izan zuten, Tolosan. HITZA

gehien mozten duenak irabaziko du apustua. Alde bakoitzak 3.000 euro jarri ditu.

ISTRIPU LARRIA

■ **Mikel Egibar presoaren familiak istripu larria izan du.** Abuztuaren 7an, Mikel Egibar presoaren bikotekideak, semeak eta alabak istripu larria izan zuten. Zuerako espexean bisita egin ostean izan zuten istripua, eta larri zaurituta ospitaleratu zituzten. Hurrengo egunetan, mobilizazioak izan ziren Mikel Egibarraren herrian, hau da, Zizurkilen. Istripua izan eta hurrengo egunean elkarretaratze deitu zuten, eta jende asko elkartu zen. Zizurkilgo udal gobernuak ere ez ohi batzarra egin zuen. Euskal presoaren sakabanaketa eta istripua salatzen moztu ere onartu zuen. Era berean, Mikel Egibar herriko presoaren sendidei elkartasuna adierazi zieten.

DOMINARIK GABE

■ **Londresko Olinpiar Jokoetatik dominarik gabe itzuli dira.** Leire Olaberria ikaztegietak eta Xabi Fernandez ibartarrak

dominik lortu gabe egin behar izan zuten Londrestik etxerako bidea. Oraingoan ez zuten zorterik izan, eta ezin izan zituzten duela lau urte lortutako dominak errepikatu.

KAMIOI GIDARI BAT HIL DA

■ **Elduainen izan zuten istripua kamioi gidariak.** Gidaria istripuaren uanean bertan hil zen. Abuztuaren 16ean, Elduainen izan zen istripua G1-2130 errepidean Berastegirako norabidean.

HAUTESKUNDEAK URRIAN

■ **Patxi Lopez lehendakariak hauteskundeak aurreratu ditu.** Eusko Jaurlaritzako Lehendakariartzako hauteskundeak urriaren 21ean izango dira. Patxi Lopezek gobernuak abuztuaren 21ean iragarri zuen hauteskundeak aurreratu egingo direla. Tolosaldeko herritarrei ere, beraz, eragingo die.

BARAUALDIA

■ **Euskal preso gaixoen egoera salatzen baraualdia egin da.** Josu Uribetxerria preso gai-

xoaren egoera ikusita hainbat ekimen egin dira abuztuan. Horien artean, Ibarako herriko festetan, larunbatean, baraualdia egin zuten. Goizeko 10:00etatik 19:00etara egin zuten eta hogeitabat lagun inguruk egin zuten baraualdia. Donostiako ospitalean egin zen baraualdian ere eskualdeko hainbatek parte hartu zuten.

LARA ARRUBARRENA

■ **Grand Slameko lehen partida irabazi du tolosarrak.** New Yorken aritu da jokoan, eta Sha-har Peer tenisleriaren aurkako lehen partida irabazi bazuen ere, bigarren kanporaketan ezin izan zuten aurrera egin. Jelena Jankovicek US Openetik kanpotu du 21. urteko gaztea. Bigarren aldiz parte hartu du Lara Arrubarrenak tenisleriak Grand Slameko txapelketa batean. Izen handien artean bere lekua egiten ari da.

SAHARARA BUELTRAN

■ **Tolosaldean eta Leitzaldean uda pasa duten haur sahararrek etxean dira.** Urtero etortzen dira haur sahararrek uda gurean pasatzera. Aurten, bi hilabete pasa dituzte hemengo familietan, eta indarberrituta itzuli dira. Abuztuaren 25ean hartu zuten etxerako bidea haur sahararrek.

'TTIKI' BERRIZ TXAPELDUN

■ **Antonio Alustizak Ttiki txakurrarekin irabazi du Nafarroako txapelketa.** Antonio Alustiza aresoarrak, abuztuaren 26ean, Uharteko Arakilen jokatu zen Nafarroako Artzain Txakur Txapelketaren 45. edizioa irabazi zuen *Ttiki* txakurrarekin. Honenbestez, Nafarroako hamahirugarren txapela jantzi du, eta bederatzigarren aldiz jarraian lortu du txapela preziatua. Azken txapelarekin *Ttiki* Nafarroako txapelketa gehien irabazi dituen zakurra da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Solairu nagusia eta goiko solairua edo ganbara erabat kiskali ditu suak. Teilatuaren zati handi bat nahiz zoruaren zati bat erori egin dira. I.T.

Sute batek guztiz kiskali du Leaburuko Naparreneia baserria

Herenegun gauean piztu zen sua baserriko logelan zirkuitulabur batek eraginda; ez da zauriturik izan

Hormak zutik geratu arren, baserriaren bi solairu erabat erreta geratu dira

Iñigo Terradillos Leaburu-Txarama

Herenegun gauean piztu zen sutearen ondorioz, erabat kiskalita geratu da Leaburuko Naparreneia baserria. Bertan bizi den 60 urteko emakumeak ez du zauririk izan, ezta animaliek ere. Kalte materialak, baina, handiak izan dira, eraikinaren barnealdea eta kanpoaldearen zati handi bat erre baititu suak.

22:45 inguru zirenean piztu zen sua, antza, logelan izandako zirkuitulabur batek eraginda. Suaz ohartu bezain laster, bizilagunengana jo zuen emakumeak laguntza eske. Horiek izan ziren, hain zuzen, larrialdi zerbitzuetara hots egin zutenak suaren berri emanez. Suhiltzaileak, Gurutze Gorria eta Ertzaintza segituan gerturatu ziren ezbeharrak gertatu zen lekura.



Beheko solairuak izan du kalte gutxi. I.T.

Suhiltzaileen bost ibilgailu aritu ziren sua amatzeko lanetan. Eusko Jaurlaritzako Herriazango Sailak adierazi duenez, 03:00etarako lortu zuten itzaltzea. Anbulantzia bertaratu bazen ere, ez zuten inor artatu beharrik izan, ez baitzen zauriturik izan. Baserriari dagokionez, hormak zutik mantendu ditu, baina, ia barrualde guztia erre du suak. Sua piztu zen solairu nagusia zein ganbara kiskalita daude, eta beheko solairua, hau da, ukuilua da gutxienez kaltekoa izan dena. Ondorioz, bertan zituzten katu, oilo eta txakurrak ere ez dute zauririk izan. Teilatuari dagokionez, zatirik handiena erorita geratu da. Kanpoaldera ere hedatzen hasi zen sua, zuhaitz batzuetan, hain justu, baina segituan itzali zuten.

Logelatik hedatua

Naparreneia baserrian bizi den emakumeak aldamenean dagoen Argiñene baserriara jo zuen suaz jabetzeaz. Bertako Jexux Mari Aristimuñok azaldu duenez, emakumea «oso urduri» zegoen, eta «bere familiako kideren batekin jarri nahi zuen harremanetan». «Sua bere logelan piztu eta hedatzen ari zela, eta berari karranpa eman eta ia lurrera bota zuela azaldu zigun», adierazi du Aristimuñok.

Luisa Uzkudun Leaburuko alkatea sua piztu eta berehala gerturatu zen Naparreneia baserriara. «23:30ak inguruan ziren suaz ohartarazi zigutenean, eta orduko suhiltzaileak lanean ari ziren». Uzkudunen hitzetan, «jota» zeuden, bai bertan bizi den emakumea, baita seme-alabak ere. «Gure babesa eta laguntza erakutsi genien, esaterako, ostatua eskainiz lo egiteko».

Emakumea maizterra da Naparreneia baserrian, eta aspalditik bizi da Leaburun. Alkateak dioen moduan, «ez dakigu oraindik zein irtenbide izango duen ezbehar honek, baina herrian baserri bat gutxiago dugu, eta famili bat, berri, kalean geratu da».

Irudia ▶ Areso

MENDIZALE UGARI ARESOKO MENDI MARTXAN

Aresoko Udalak, Kirol Mankomunitateak eta Plazaola Parkearen zuzendaritza antolatuta, Aresoko V. Mendi Martxa egin zuten herenegun. Azken urteetan oso arrakastatsua izan da ekimena, eta aurtengoan ere bide beretik mantendu da, aurreikuspenak betez, 580 mendizale inguru izan baitira. Aurtengo Martxa gaztelura igo dira parte hartzaileak, 25 kilometroko bide eginez. Bukatzeko, mendizaleek paella erraldoia izan zuten bazkaltzeko. HITZA



Oporretako argazki ederrenaren bila

Udako Argazki Lehiaketako lehen argazkiak iristen ari dira; urriaren 2an bukatzen da epea oporretako argazkiak bidaltzeko

Lehiaketako lehen hiru postuak eskuratzen dituztenek sariak jasoko dituzte

Erredakzioa

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK antolatutako Udako Argazki Lehiaketako argazkiak iristen hasi dira, eta lehen biak Kanadan ateratakoak dira. Lehiaketako lehen hiru postuak saria izango dute. Lehenengoak Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia irabaziko du, bigarrenak Tolosako Photokaferen eskutik, argazki album analogikoa egiteko aukera, eta hirugarrenak Tolosako Orue erretegian, bi pertsonentzako otordua eskuratuko du.

Nabarmentzekoa da irakurle guztiek dutela udako oporraldietako argazkiak bidaltzeko aukera, baina bakoitzak argazki bakarra bidali ahal izango du. Irudiak thargazkiak@hitza.info helbidera, edota posta arruntez Tolosako Araba etorbideko 5-atzea helbidera bidali behar dira. Urriak 2 izango da irudiak bidaltzeko azken eguna. Argazkia bidaltzerakoan egilearen izen-abizenak, telefono zenbaki bat, eta argazkia non ateratu den azaldu beharko da, azalpen txiki baten bidez.

Urriaren 5ean, zortzi finalistak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO epaimahaiak jasotako lan guztiak ikusi eta zortzi aukeratu ditu. HITZAN urriaren 5ean ikusi ahal izango dira finalistak. Horien artean gustukoena harpidedunek bakarrik aukeratu ahal izango dute, eta horretarako thargazkiak@hitza.info helbidean harpidedun kodea, eta gehien gustatu zaien irudiaren zenbakia eman beharko dute urriak 12 baino lehen. 943 65 56 95 telefonora deituta ere bozka eman ahal izango da. Ondoren, bozka eman duten har-

↓ Baldintzak


- Argazkiak 2012ko udako oporraldikoak izan behar dira, papelean, diapositiban eta formatu digitalean.
- Bidaltzeko aukerak: thargazkiak@hitza.info-ra, edo posta arruntez TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO Tolosako egoitzara (Araba etorbidea, 5-behea, 20.400 Tolosa).
- Argazki digitalek, gutxienez, ezaugarri hauek izan behar dituzte: 20 zentimetroko zabalera eta 300eko bereizmena.
- Jarri behar diren datuak: egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa, argazkia non eta noiz ateratu den, eta zer ikusten den.
- Jasotako argazkiak artxioboan gordeko ditugu, eta HITZAK behar dituztenean argitaratuko ditu.

↓ Sariak

- **Lehen saria.** Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia.
 - **Bigarren saria.** Tolosako Photokaferen eskutik, argazki album analogikoa.
 - **Hirugarren saria.** Tolosako Orue erretegian, bi pertsonentzako otordua.
- pidedun guztien artean, HITZAKO produktuen sorta bat zozketatuko da. Argazki guztiak tolosaldea.hitza.info webgunean izango dira ikusgai. XVI. HITZA Argazki Lehiaketa atalean. Argazki irabazleak zein boto emaile aritu den harpidedun saritua urriaren 17an argitaratuko da.



Banff-erako bidean, Kanadan, ateratako argazkia. JOSE LUIS BARAINKA



Jarper-en, Kanada, ateratako argazkia. AINHOA CALONGE



Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**

XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa



Parte hartzaileen eta bozka ematen dutenen artean, HITZAKO materiala zozkatuko dugu.

1.Saria: Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia. Bermokiz.6 -48310 (ELANTXOBE) Tel.: 657 716 648

2.Saria: Tolosako Photokaferen eskutik, argazki-album analogikoa. www.ardanaestudioa.com

3.Saria: Tolosako Orue erretegian, bi pertsonentzako otordua. Samaniego kalea, 3-Tel. 943 65 19 11 - 20400 (TOLOSA)

Eskualdeko ostatueta okupazioak gora egin du aurtengo udako oporraldian


Bisitari kopurua izakoa baino eskasagoa izan da; informazio gune bat gutxiago izateak eragina izan du horretan

Itzea Urkizu Tolosa

Iazko udako oporraldian baino bisitari gehiagok hartu du ostatu aurtun, Tolosaldeko landetxe nahiz hoteletan, eta Tolosaldea Tour bulegoko langileek nabarmendu dutenez, teknologia berriek eta internet bezalako tresnek krisiari aurre egiteko bideak irerki dizkiete ostalariei.

Landetxei dagokionez, okupazioa %55,25ekoa izan da, batzaz beste. Hoteletan, berriz, turista gehiagok hartu du ostatu, %75,96ko okupazioarekin.

Turismo bulegoetako datuei begiratuz gero, pentsa liteke krisiak eragin zuzena izan duela, bisitari kopurua %20 jaitsi baita. Tolosaldea Tour bulegoko Olatz Ilarregi, ordea, informazio gune bat gutxiagorekin aritu direla nabarmendu nahi izan du; aurtun, Tolosako Trianguloa plazako etxetxoa ez dute jarri, eta beraz, Santa Maria plazako bulegoa eta



Udaberrian, bisitari suediarrek izan ziren Gorrotxategi museoan. I. URKIZU

Abaltzisketa-Larraitzeko informazioa gunea izan dira bisitarien eskura.

Ikusi, dastatu eta egin

2009. urtean zabaldu zuten zere geroztik, Larraitzeko Txindokiko Itzala gunearen arrakasta haziz joan da. Horrela beraz, aurtun, 2.530 bisitari pasa dira bertatik, uztailaren 23tik abuztuaren 23ra bitarte.

Gune honetan, batik bat, bisitari helduak eta haurrak nabarmen dira, familia giroan au-

keratutako plana izaten baita Txindokiren magalekoa.

Tolosan, berriz, monumentu historikoez haratago, gastronomiaren inguruan bildu dira, aurtun ere, bertaratuak bisitariak. Horrela beraz, Gorrotxategi Konfitegi Museoa bisita gidatuen birtatez soilik ikusi ahal izan da aurtun, eta 1.005 pertsonak ikusi dute, uztaila eta abuztuaren bitartean.

Martxan jarri berri dituzten turismo esperientziak, berriz, hil honen amaierara arte eskainiko dituzte.

Gizonezko bat atxilotu dute Tolosan, bikotekidea jotzeagatik

Pasa den igande gauean, erdiguneko tren geltokiaren ondoan bi ertzainek ikusi zuten eraso

I. Urkizu Tolosa

Pasa den igande gauean, 28 urteko gizonezkoa atzeman zuten Tolosan, bere bikotekideari eraso egiteagatik.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi duenez, Ertzaintzaren patruila bat tren gel-

tokira bertaratu zen 22:30ak aldera.

Bertatik pasatzen ari zirenekin beste bi ertzainek, gizonezko batek emakumezko urduri bat lurtean helduta zeukala ikusi zuten. Ertzainek bereizi egin zituzten, eta neskak alkandora hautsita izateaz gain, buruan zauriak eta odola zituela ere ikusi zuten.

Emakumearekin hitz egin eta gero, bere bikoteak eraso egin zion berretsi zuten, eta 28 urteko gaztea atxilotu egin zuten, ustezko genero biolentzia delitua egotzita.

o tolosa@hitza.info

Istripuen prebentziorako doako ikastaroa eskainiko du DYAK

I. Urkizu Tolosa

2009az geroztik urtero egiten duten moduan, aurtun ere biztanleei doako ikastaroak eskainiko dizkie DYAK, datorren irailaren 8ra bitarte.

Aurtengo gaia, 'Osasuna eta Istripuen prebentzioaren astea' izango da, eta honako gaiak landuko dituzte: ohiko larrialdiak, hessgai-luen oinarriko tailerra, etxeko is-

tripuen prebentzioa, bihotz-birikien suspertzea, bihotzaren zain-tza eta moto istripu baten simulazioa.

Saio guztiak, Larremendiko 7. zenbakiko egoitzan izango dira, 19:00etatik 21:00etara; larunbatekoa, ordea, 12:00etatik 13:00era bitarte burutuko dute.

Izena emateko, 943 46 46 22 telefonora dei daiteke, edo irakas-kuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com helbidera idatzi.

Olatz Ilarregi • Tolosaldea Tourreko arduraduna

«Larunbateroko azoka erreferentziatzen dute turistek»

I. Urkizu Tolosa

Turismo bulegoetako bisitari kopurua behera egin duen arren, ostatueta okupazioa igo egin dela nabarmendu du Ilarregi.

Datuez haratago, zein da zuen balantzea?

Bisitari kopurua %20 jaitsi da, baina aurtun Trianguloa plazako informazio gunea ez da izan. Bulego bat gutxiagorekin, bisitariak ere gutxiago izaten ditugu. Baina balorazio orokorra positiboa da, turismo bulegotik pasatzen den bisitari kopurua termometro bat delako; ostatuen okupazioari begiratuz gero, iaiztik hona hobetu egin dela ikus daiteke. Era berean, Larraitzen ere jende gehiago izan da aurtengo udan, izakoa baino.

Bisitariak zer bilatzen dute eskualdean?

Batez ere, Gipuzkoako hiriburu zaharra eta eskualde-burua izan

zen aldetik, Tolosa da ezagunena. Larunbateroko azoka erreferentziatzen dute turistek, eta beste edozein egunetan baino askoz ere bisita gehiago jasotzen ditugu larunbatetan. Era berean, ordea, inguruko herri txikiak ere joan nahi izaten dute, eta Larraitzera ere, esan bezala, jende asko etortzen da.

Zer nolako harrera izaten ari dira turismo esperientzia berriak?

Oraindik ez dugu balorazioa egin, uztaila amaieran jarri baikenituen martxan, eta hil honen amaieran bukatuko dira. Eskaintza nahiko berritzailea da, eta esaterako, sukaltalkako tailer batzuk egin ditugu; gipuzkoarrak nahiz kanpotarrak aritu ziren. Parte hartu zutenak oso pozik geratu ziren, baina egia da, publiko nahiko berezia dela. Orain, irailaren udan kanpoan izan den bertako jendea animatuko dela uste dugu. Ea hala den.

↓ Bisitarien datuak

Jatorria	2011	2012
Araba	145	249
Bizkaia	728	445
Gipuzkoa	4.284	3.449
Nafarroa	132	496

Herrialde	2011	2012
Katalanak	2.066	1.370
Espainia	1.440	1.404
Alemania	91	81
Frantzia	622	417
Herbehereak	72	91
Italia	104	76
Europako gainerakoak	87	79

Besteak	488	377
Guztira	11.674	9.368

↓ Okupazioa

Landetxeak	%
2011	50
2012	55,25

Hotelak	%
2011	71
2012	75,96

Bertako informazioari bertako produktuak

Egin HITZAREN harpidedun irailaren 3tik irailaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatorri izenarekin, OPARI

Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu

Artizano nekazalariaren Zimurga, 46 HONDARRIBA (Gipuzkoa)
Tel: 943 642 337 / 655 721 834
www.rekatur.net/artizano

hitzza info



Eneko Garmendia ballaraindarra Donostiako Trinitate plazan, larunbatean. EH-KO KIROL FEDERAZIOKO PRENTSA BULEGOA

Eneko Garmendiak irabazi du Euskal Herriko lokotx biltze txapelketa

Josune Gorostidi txaramarra bigarren postuan sailkatu da, irabazlearengandik 21 segundora

A. Imaz

Euskal Herriko lokotx biltze txapelketa jokatu zen larunbatean Donostian. Gizonezkoetan Eneko Garmendia ballaraindarra izan zen azkarrena, eta emakumezkoetan Josune Gorostidik bigarren postua eskuratu zuen.

Garmendiak Euskal Herriko bigarren txapela irabazi zuen Donostian, lehena 2007an eskuratu zuen. 50 lokotx biltzen sei minutu eta bi segundo behar izan zituen Garmendiak, bere marka 33 segundotan hobetuz. Larunbatean,

bigarren sailkatuari 13 segundo atera zizkion.

Josune Gorostidik 7:34ko denbora behar izan zuen bere lana amaitzeko. Irabazlea, ordea, Maika Ariztegi nafarra izan zen, 7:13ko denborarekin.

50 lokotxak 25eko bi ilaratan zeuden kokaturik, 1,25 metroko distantziara. Proba amaitzeko lokotx guztiak saskira eraman behar zituzten.

Trontza txapelketa

Donostiako Trinitate plazan, lokotx biltzaileen ondoren, trontzariak irten ziren lehiara. Eskualdeko ordezkariek Unai Iraola eta Jokin Garmendia ziren. Bost bikoterekin batera aritu ziren lanean ikaztegiatarra eta ballaraindarra. Txapeldunak Barberena anaiak izan ziren, 10:37ko denborarekin. Eskualdeko ordezkariek

bosgarren postuan amaitu zuten egin beharreko lana, irabazlearengandik 3 minutu eta 25 segundora.

Harri jasotzaileak

Kintopekoen Euskal Herriko Harri jasotze Txapelketa jokatu zen igandean. 21 urte baino gutxiago dituzten lau kirolari aritu ziren lehiara, eta bertan egon zen Joseba Esnaola berrobitarra. 18 urteko mutilak 43 jasoaldirekin amaitu zuen bere saioa, hirugarren postuan.

Jagoba Otaegi izan zen indartsuena, 49 jasoaldirekin. Harri jasotzaileak lehenik 100 kiloko zilindro zahararekin aritu ziren lanean, eta ondoren pisu bereko harri kuboarekin. Irabazleak guztira 4.900 kilo leporatu zituen, eta Joseba Esnaolak 4.300, hiru minutu eta bi saiotan.

Aimar Agirresarobe jaun eta jabe Zumaiako triatloian

Maialen Muñozek 23 urte azpikoen lasterketa irabazi du; sailkapen orokorrean bosgarren gelditu da

A. Imaz Tolosa

Aimar Agirresarobe tolosarrak irabazi zuen larunbatean Zumaiako Sprint Triatloia. Atletico San Sebastian taldeko kideak bigarrenari 1:17 segundoko aldea atera zion, hau da, Hektor Llano-si. Hirugarren postuan Ricardo de Goñi iritsi zen, irabazlearengandik 1:34 segundora. Emakumeen lasterketa Ainara Patxekok irabazi zuen, Gemma Hernandez eta Ainhoa Garciaren aurretik sailkatuaz.

Igeriketa proban Agirresarobe laugarren postuan iritsi zen lehorra. Lasterketaren burua, bizi-

kletan hartu zuen tolosarrak, sail honetan denbora onena markatu zuelarik. Korrika hirugarren markarik onena egin zuen Agirresarobek, lidertzari sendo etsiaz.

Emakumezkoen proban, Maialen Muñoz ibartarrak bosgarren postuan amaitu zuen triatloia, irabazlearengandik 4:39ra. Tolosaldeko Triatloi Taldeko kidea 23 urte azpikoen mailan lehena izan zen, bigarrenari ia zortzi minutuko aldea atereaz. Zumaian triatloian IV. edizioa jokatu zen larunbatean, azken lau urtetako hutsunea beteaz. Lehen, distantzia olinpikoan jokatzen zen, baina aurten sprint distantziari heldu diote. Lehenik 750 metro egin zituzten igerian, ondoren, 20 kilometro bizikleta gainean, eta azkenik, 5 kilometro korrika. Gizonezkoetan 160 partaide irten ziren, eta emakumezkoetan, 24 atleta iritsi ziren helmugara.

→ Laburrak

Nagore Arozenak zilarrezko domina lortu du

LIZARTZA › Trinketeko Munduko Kopako partidak jokatzen ari dira Iruñean, eta Nagore Arozenak zilarrezko domina irabazi du paleta goman. Lizartzarrak Haizea Zamorarekin osatu du bikotea, eta finalean Frantziako bikotearen aurrean eman behar izan dute amore, 2-0eko emaitzarekin, 15-7 eta 15-11 galdu ostean.

Bederatzi segundoko aldea besterik ez

ARRAUNA › Kontxako Bandaren lehen jardunaldia jokatu zen herenegun Donostian. Getaria-Tolosako traineruak bigarren postua eskuratu zuen, Rianxeiraren atzetik, bederatzi segundora. Eskualdeko arraunlariek osaturiko trainerak estropada bikaina egin zuen, baina galiziarrek ziabogan ateratako errentari ederki eutsi zioten. Bigarren eta jardunaldi erabakigarria igande honetan jokatuko da. Hirugarren postuan, oraingoz, Zumaiako taldea dago, 14 segundora.

berria bekak 2012

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 zortzi beka,** horietako bat bideo informatiboak lantzeko

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, irailetik ekainera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

EZAUGARRIAK:

- Hamabi hilabeteko iraupena, irailetik irailera
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian



GARI GARAIALDE

Leire Olaberria ◊ Txirrindularia

Londresko Olinpiar Jokoetan 13. postuan amaitu zuen Omniu proba Leire Olaberria ikaztegiatarrek. Orain bizikleta geldirik dauka, eta horrela edukiko du buruak eta gorputzak eskatzen ez dien bitartean.

«Londresen nire mailatik urrun ibili naiz»

Asier Imaz ikaztegieta

Pistako txirrindularia da Leire Olaberria (Ikaztegieta, 1977). Olinpiar Jokoak tristura puntu batekin amaitu zituen, nahi eta ezinaren zapore garratzarekin.

Gorputzak ez zizula erantzun esan zenuen Olinpiar Jokoak amaitzean, etsipen puntu batekin. Denborak sentsaziorik aldatu al du?

Nere mailatik urrun ibili nintzen, eta horrek sortu zidan etsipena. Hala eta guztiz ere, jakitun nahiz Olinpiar Joko batzuetara sailkatze hutsa ez dela erraza. Bi urte gogor lanean aritu ondoren, zita horretan lan on bat ez egitea da dudaren bakarra.

Zitaren garrantzia ikusita, 13. amaitzea ez dago gaizki.

Postuak ez dit ezer esaten. Nire maila eman izan banu, laugarren edo bosgarren postuaren borro-

kan ibiliko nintzen. Nire lanarekin ez naiz batere gustura gelditu, beste helburu batekin joan bainintzen. Proba amaitzean horrela ikusten nuen, eta orain, hilabete pasa ondoren, berdin ikusten dut. Ez da ezer aldatu.

Zapore txar hori kentzeko, zer egin duzu azken hilabete honetan?

Zitaren ostein oso nekatuta sentitu naiz; erabat deskonektatu nahi nuen. Aspaldian ez bezala, oporretan nago orain. Nire buruak eskatzen ez didan bitartean gainera, horrela jarraituko dut, hau da, gorputzari eta buruari errekuperatzen utzi nahi diet. Bizikleta gainera igotzeko ez dut eperik jarriko, denbora dagoelako. Gorputzak eta buruak berriro igotzea eta borrokatzea eskatzen baldin badidate, horrela egingo dut, eta ez badidate eskatzen, hori ere onartu egingo dut.

Alde positiboetan pentsatu al duzu?

Lasterketa guztiek dute alde positiboa. Londresek sortu didan motibazioa ez dit beste ezerk sortu, eta horrekin oso pozik nago. Ez zait ahaztu lau urte hauetan lanean zein gogotsu aritu naizen. Argi daukat merezi izan duela, nahiz eta eguna iristean helburua ez lortu. Bidean Europako Txapelketa eta Munduko Kopa irabazi ditut, eta ez nuen sekula horrelakorik lortzea pentsatzen. Gauza positibo pila egon dira.

Azken bi Olinpiar Jokoetan egon zara. Zer da zuretzat horrelako zita bat?

Kirolari batentzat momenturik politena da. Kirol txikietan ibiltzen garenok, gainontzekoen pare ikusten gara zita honetan, eta agian ikuspegi hori da gehien gustatzen zaizuna.

Xabi Fernandez • Nabigatzailea

«Ez zitzaigun asko falta hobeto ibiltzeko»

A. Imaz Ibarra

Belan, 49er mailan, 12. postua lortu zuen Olinpiar Jokoetan Xabi Fernandezek (Ibarra, 1976), Iker Martinezekin batera. Amerika Kopa prestatzen hasiko da bi aste barru, beraz, egun hauetan etxetik gertu dabil.

Olinpiar Jokoen inguruan, nolako balantzea egiten duzu?

Pozik ezin egon, beraz, balantzea ez da oso ona. Horrelako gauzak, ordea, pasa egiten dira. Joateko aukera baldin baduzu, ezin duzu ezezkorik esan, baina gero penarekin gelditzen zara, hobeto ibiltzeko asko ez baitzen falta.

Volvo Ocean Race amaitu berritan etorri dira Jokoak. Prestakuntzarako aukera gutxi izan duzue. Eragina izango zuen, ezta?

Hori ziur, baina joan aurretik bagenekien prestakuntza ez zela hobereña izango. Gero lesio bat izan nuen, eta horrek ere ontzia lantzeko denbora kendu zigun. Atzetik aurrerako lana egiten hasi ginen, eta puntuatu ezinean ibili ginen. Ezin lesioari erru guztia bota, baina lagundu baino kalte egin digu.

Hirugarren Olinpiar Jokoak izan dira Londreskoak. Zer moduzkoak izan dira?

Guretzat politena Atenasekoa izan zen, lehena zelako eta irabaztea lortu genuelako. Pekinen erregata eremua oso txarra zen, eta domina lortu arren, ez genuen batere gozatu. Azken hauek oso ongi egon dira, bai antolakuntza aldetik eta baita eremuari dago-kionez ere.

Aurrera begira, Amerika Kopa Italiako talde batekin jokatuko duzu.

Bai. Kontu hau aspalditik zeterren, eta horrela izango da. Olinpiar Jokoen ondoren, beste esperientzia bat izango da. Belan beti esan ohi da hiru mugarri daudela: munduko erregata, Olinpiar Jokoak eta Amerika Kopa. Hirurak egiteko hau falta zitzaigun, eta irabaztea oso zaila izango den arren, esperientzia ona izango da, gainera talde barri batekin ariko gara.

2013ko abuztuaren hasiko da, tartean zeregingo duzue?

Bi aste barru hasiko gara prestaketa lanekin; sei hilabete Ameriketako Estatu Batuetan eta beste sei Zeelanda Berrian pasaz.



I.TERRADILLOS

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Pasa berri diren herriko jaien balantzea egiteko asmoz, 19:30ean bilera egingo du festa batzordeak udal bilkura aretoan. Herriko talde, elkarte, zein norbanakoei bertan parte hartzeko gonbitea egin dute.
- **Tolosa.** DYA elkarteak Osasuna eta Istripuen Prebentziorako Astea antolatatu du aste honetarako. Gaur, 19:00etatik 21:00etara, hesgailuen oinarriko tailerra emango du, Larra-mendi kalean dagoen egoitzan. Izena emateko irakaskuntza.eskola@DYA-gipuzkoa.com helbidera idatzi edo 943 46 46 22 zenbakira deitu behar da.

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarra. Lizarra kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

Giroa irabazle Udako Azken Festan

Hamasei taldek parte hartu dute boleibol txapelketa mistoan eta 19-90 taldea izan da irabazlea

Imanol Garcia Landa Tolosa

Udako Azken Festa «arrakastatsua» izan dela nabarmendu dute antolatzaileek. Ibon Leundak, tabernariaren ordezkaria Tolosa&CO elkartearen, azaldu duenez, «festa honen helburua giroa sortzea da. Udako oporraldiei giro onean amaiera ematea. Horregatik boleibol txapelketan herrikoek parte hartu behar zuten eta taldeak mistoak egitea erabaki da». Kua-drillen arteko txapelketa izan dela esan du Leundak eta larunbat gauean afariekin-eta giro on hori luzatu egin zela gaineratu du.

Guztira hamasei taldek parte hartu dute boleibol txapelketan. Irabazlea 19-90 izan da, Solana 4ean afaria irabaziz. Bigarren sailkatua 19-90 Tostada, 19-90an afaria irabaziz, eta hirugarrena Orbela taldea izan da, Orbela tabernariaren afaria eskuratuz. Euskal



19/90 taldeak irabazi du aurtengo Udako Azken Festako boleibol txapelketa. HITZA

Herria plazan jokatu da txapelketa eta aurtengo joko sistema aldatu egin da. Parte hartzaileak lau taldetan banatu dira eta talde bakoitzak gutxienez hiru partida jokatu ditu. «Jokatze modu horren bitartez, aukera gehiago izan dute taldeek eta ikusle gehiago ere erakarri ditu», azaldu du Leundak. Datorren urtean ere

festa antolatzeko asmoa dutela esan du.

Bestalde, Tolosako Udalak azpiegitura muntatzeko emandako laguntza eskertu du Leundak, eta baita Keler etxeak eta honen banatzailea den Villanueva Ardoak ere festa babesteagatik. Horrez gain, sariak eman dituzten tabernen eta Shanti Kirolak dendaren

laguntza ere nabarmendu du. Boleibol txapelketaz gain, futbol txapelketa jokatu zuten hondar gainean gaztetxoek, 3x3 formatuan, igande arratsaldean. Zortzi talde aritu dira eta Zuloaga Txiki izan da lehiaketa irabazi duena. Lehen bi taldeek Shanti Kirolakek emandako baloiak jaso dituzte sari moduan.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●● **agurrak**



URTE ASKOANI!

Gaur aitona urtebetetze eguna, bihar Ikerrena eta datorren asteartean Unairrena. Zorionak eta muxu handi bana etxekoek partetik.